

# N

# .U



H A M A B O S T E K A R I A

1997ko apirilak 18

Usurbil, 18. Zenbakia



**BASERRITAR  
GAZTEAK SASOIEAN**



# Zer irizten?

## Noaua!

Usurbilgo hamabostekaria

**Argitaratzailea:** Noaua!  
Kultur Elkarte. Kale Nagusia,  
37 - 20.170 USURBIL (Gipuzkoa)  
Tlf. eta faxa (943) 36 03 21.  
e-mail:  
Noaua.mandio@redestb.es

**Zuzendaria:** Olatz Altuna.

**Kazetariak:** Ainhoa Azpiroz,  
Idoia Torregarai, Josu  
Aranberri, Garikoitz Udabe.  
**Kolaboratzaileak:** Pedro Mari  
Matxain, Nere Amenabar, Ines  
Kamino, Leire Atxega, Iñaki  
Labaka, Iratxe Begiristain,  
Begoña Zubiria, Amagoia  
Mujika, Xabier Arregi, Pako  
Agudo, Alfonso Vidal, Nieves  
Aranburu, Luis Aranalde eta  
Zalao Arnaiz **Administrazioa:**  
Arantxa Usarralde, Aitor  
Pikabea eta Nerea Kamino.  
**Erredakzio Kontseilua:** Olatz  
Altuna, Garikoitz Udabe, Jose  
Jabier Furundarena, Iñigo  
Azpiroz, Idoia Torregarai, Josu  
Aranberri, Ainhoa Azpiroz.

**Maketazioa:** Susana

Martin. **Argazkia:** Joxe Antonio  
Labaien. **Informatika:** Pili Liza-  
so. **Banaketak:** Mertxe Jimenez,  
Txelo Vidal eta Iker Muguruza.  
**Sukaldaria:** Joxe Mari Sarasola,  
**Tirada:** 2.200 ale

**Lege-Gordailua:** SS-668-96

**ISSN:** 1136-6818

**Inprimategia:** Antza,  
Industrialdea 1 - 2, 20.160  
Lasarte-Oria.

Noaua! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

**PORTADA:** Xabier Zudaire  
(Araundi), Mikel Orbegozo  
(Daldagorri), Andoni  
Lizarralde (Etxetxo), Imanol  
Zarauz (Troia) eta Aitor  
Alkorta (Egioleta haundi).



## Lehenengo ibilaldi hura

Jabier Arruti

Andatza KKEko kidea

Orain dela 22 urte sortu zen Andatza Elkarte. Aurretik Bordatxo zuen izena baina zenbait gora-behera zirela eta baija eman zen Federazioan. Horrela, berriro hasi lagun koadrila bat, eta orduan Andatza jarri genion izena. Garai hartan inguruko herriein elkartu ginen: Hernani, Urnieta, Añorga, Lasarte-Oria eta pixka bat beranduago Orio. Denon artean 8-9 orduko ibilaldi bat antolatu genuen eta oso ondo atera zen.

Geroztik gauzak aldatuz joan ziren eta elkarte bakoitzak geure kasa jarraitu genuen lanean.

1982 inguruan berriro ibilaldi haundi bat antolatu behar genuela pentsatzen hasi ginen. Jose Mari Arrospide, Jose Luis Kamino, Andoni Lasarte, Diego Lopez, Pako Portu eta ni animatu ginen beste batzuen laguntzarekin. Denon artean ibilaldia nola eta nondik barrena antolatu pentsatzen hasi ginen. Horrela sortu zitzaigun Usurbilgo mugetatik ibilaldi bat egiteko ideia.

Bideak garbitzen hasi ginen ote eta sasiak hartuta zeudelako. Traba bat ere bagenuen: Oria ibaia, baina hori ere gainditu genuen. Jose Mari Arrospidek Aginagako Aranbururekin hitz egin zuen eta haren ala erabiltzeko ados jarri ginen. Pis-

kanaka denborak neurtzen joan ginen eta azkenean buelta osoa neurtu genuen. 9-10 ordu behar ziren eta tamaina onekoa iruditu zitzaigun.

Txartelak, planoak... egiten hasi ginen. Propaganda ere haundia egin genuen. Ana Aizpurua eta ni irratira joan ziren. Txartelak Gipuzkoa eta Bizkaiko elkarte guztietara bidali genituen. Herriko dendei ere gosari lege bat egiteko janaria eskatu genien eta oso ondo portatu ziren. Evak sagardoa eta zumoak eman zizkigun, fruta Urkola Frutak-ek, Arruti harategiak haragia, eta yogurrak Gurelesatik erosita. Haragi pusketekin ematen genien salda Orioko bentan. Baina lehenago Oria ibaia pasa beharra zegoen. Baziren uretan pasa nahi ez zutenak mareatu egiten zirela eta (azpeitirrak batez ere). Baina azkenean denak pasa ziren, eta gero parre egiten zuten beraiek ere.

296 lagun etorri ziren, iparraldetik ere hamar bat. Oso gustora ziren. Handik hilabete batera eskutitz bat bidali ziguten eskerrak emanez oso egun polita pasa zutela eta berriro ere etorriko zirela esanez. Asko poztu gintuen horrek eta geroztik urtero jarraitu dugu ibilaldia antolatzen.

**N • I**  
**Ileapaindegia**

MISTOA  
Solarium, depilazioa,  
makilajea eta manikura

Aritzeta 2 - 2 1.A  
Telefonoa: 36 19 51

**MAHUKA**



GAZTE DENDA

Orain, udaberriko  
püntako moda

Etxebeste kalea,3 - Tlf. 36 11 06

PINTXO BEREZIAK

Aritzeta, 2 Tel.: 37 10 42



**ZUMARTEKOEI ADEITASUNEZ**

Beste hainbat eta hainbat herritarrek bezala, joan den larunbatean, apirilak 12, Zumarte Musika Eskolak antolatu ohi dituen kontzertu pedagogikoe-tako bat ikusteko aukera izan nuen. Zumarte eta Oreretako Oinarri abesbatzek eskeinutakoa hain zuen. Benetan ederra eskei-ni ziguten emanaldia. Oro har antolaketan ere aparta izan zen, baina halere, ene uste apalean, bada hobetu daitekeenik eta horixe adierazteko idazten dut.

Dakizuenez kontzertua San Salbador elizan ospatu zen. Leku aproposa horretarako dudarik gabe. Kontua da sarrerako ate ondoan esertzea egokitu zitzai-dala eta jendearen joan-etorriek sortutako zaratak entzumena nabarmen galerazi zigutela inguruan gineno, kontzertuaz gozatzeko beharrezko lasaitasu-na apurtuz. Bertan kokatuta zegoen antolatzailearen boron-date eta ahalegin ona ukatu gabe, zorrotzago jokatu beharko litzatekeela uste dut, beti ere barruan dagoen entzulegoaren mesedetan. Kontzertua hasi

ondoren jendeari sarrera gale-raztea gehiegizkoa izan badai-teke ere, beti izaten da ordurako iritsi ezin duen edo despitatzen den norbait, abesbatzak kanta-tzen ari diren bitartean sarrera galeraztea zilegi iruditzen zait. Kanpora atera nahi dutenek kanta batetik bestera egon ohi den atsedentxo erabiltzen duten bezala, atsedentxo hori aprobeztatu beharko litzateke ordurako iritsi ez den jendeari sartzen uzteko, horrela barruan dagoenak kanta bakoitza lasai entzungo luke eta berandu iris-ten denak sartu ahal izango luke nahiz eta horretarako, beharba-da, zertxobait (kantak ez dira luzeak izaten) itxaron izan behar. Hurrengorako kontutan izango duzelakoan, ondo izan.

**Txelo Vidal**

**EPERRAREN ALDE**

Azken egun hauetan entzun edo irakurriko zenuen, Zuberoan dagoen ikastolak ateak izteko kinka larrian egon ondoren, erai-kuntza berri bat egokitzen ari direla..

Ez dugu ahaztu behar, bertako Erakundeetatik ez dutela inolako laguntzarik jaso, beraz, garbi dago, mugaz alde bitan gau-den Abertzaleoi dagokigula proiektu honen etorkizuna ziurta-tzea.

Usurbildarrok ere badugu zer-tan lagundua; apirilaren 27an festa polita antolatu dugu herrian eta bertan izngo ditugu hainbat dantzari eta aberlari Zuberutarrek.

Egun horretarako, BAZKARI HERRIKOIA antolatu dugu, eta honen ostean Ikastolako Zuzendaria den ITXARO BORDAK, Usurbilen bildu den diru laguntza jasoko du.

Gure helburua 500.000 pezeta lortzea da eta jadanik ia erdia lortu dugu, beraz bide honetik goaz.

Eskerrik beroenak laguntzen ari zareten guztiok, eta ez ahaztu apirilaren 27an Usurbilgo Abertzaleok dugun zita. Han izango zeratelakoan, agur bero bat.

**Lontxo Zubiria**



*Eskubikoa futboleko baloia da, arraultza ere ikusten dugu, baina zer da arraultzaren azpian dagoena? Ikusi makusi zer ikusi, ikusten dut ikusten dut: astaputza. Andatzara abiatzen bazarete Igartzazabal parean aurkituko duzue, norbaitek jada-nik hartu ez badu behintzat. Larunbata, hilak 12an han zegoen oraindik.*

**PATRI**  
**JATETXEA**  
Eguneko bazkariak eta afariak  
Nagusia,6 20170 Usurbil  
Tlf 36 27 25 (Gipuzkoa)

**Skaitz**  
Bideo eta Argazkiak  
Usurbil tlf 36 14 87 oiartzun


**ORBELDI**  
MARKEL OLAIZOLA  
ASEGURU AGENTEA / Zbk. 200009  
**GENERALI**  
Aseguru Konpainia  
Mota guztietako Aseguroak zure zerbitzurako  
Aritzeta, 1 Tlf: (943) 37 18 07  
20170 Usurbil (Gipuzkoa)

# Berriketan

## JOXE RAMON PAGOLA



**69 urte ditu. Txikierdin jaioa, hiru urterekin Kalezarrera joan zen bizitzera. Erremontean jokatzeko zuen eta profesioaletan ia 30 urte egin zituen. Oso lotsatia da Joxe Ramon, eta berak ez du hori ukatzen.**



### Elkarrizketek horren beldur handia ematen al dute?

Erremontean jokatzeko nuenean irratian lan egin zuen lagun bat nuen. Hura behin baino gehiagotan saiatu zen ni elkarrizketatzen baino irratirako nire hitzik ez zuen inoiz lortu. Beste behin, Madrila joan ginen partidu bat jokatzera. Ondoren irratira eraman gintuzten elkarrizketatzera. Hura ridikulu, ez dakit bi hitz osatu nituen, erdaraz hitzegiten jakin ez eta gainera lotsaz gainezka.

### Beti izan zara hain urduri eta lotsatia?

Uste dut baietz. Txikitan bizikletan laisterketak egingo nituzkeenean gelditzen nintzen. Aurrena gelditzen ez banintzen ridikulu egingo nuela uste nuen. Beste batean eskolako artean korrika egin genuen Usurbilen. Ni bigarren gelditu nintzen Orbegozoren atzetik. Ondoren aurrekoa egitera atera ninduten, hura lotsa.

### Horregatik al zaude oraindik ezkondu gabe?

Parte batean baietz esango nuke. Lotsatia izan naiz beti eta ez dut balorerik izan.

### Noiz eta nola hasi zinen erremontean jokatzeko?

Txiki-txikitatik pelotarako afizio handia izan dut. Usurbilen eskuz pelotan ibiltzen nintzen, eskubia oso ona nuen baino ezkerre zeharo txarra. Aitak honela ezin nuela jarraitu esan zidan eta erremontean hasteko. Izan ere, erremontean esku bakarrarekin jokatzeko da. Donostiako "Fronton moderno"ra joaten nintzen erremontean jokatzeko ikastera.

### Zure pelota zaletasuna hain handia al zen?

Ikaragarria zen, sekulako afizioa nuen. Astean hiru aldiz joaten nintzen Donostiara. Trena hartu, Amaran jeitsi eta korrika batean joaten nintzen Atotxa parean zegoen pelotalekura. Azkar

aldatu eta pelotan jokatzera, besteak eserita lasai egoten ziren bitartean.

### Profesioaletan ere hainbat urte egin zenituen ezta?

Ia 30 urte egin nituen profesional mailan jokatzeko. Urumea pelotalekuan egin nuen nire debuta 1949ko urtarrilaren 29an, 19 urterekin. Galarretan, Euskalen, eta Madridentan ere jokatu dut. 50 urterekin utzi nuen. Galarretan egin zidaten omenaldia, sekula baino urduriago joan nintzen.

### Kalezarren Peña Pagola elkarte bada. Peña ere bazenuen?

Bai, ez zabilta oker. Nire izenean peña bat egin zuten. Ez oso famatua nintzelako, garai hartan bilgune bat nahi zuten kalezartarrek eta ezin zuten lortu. Honela, kirolari baten izenean elkarte bat sortu zitekeenez, nire izena erabiltzea erabaki zuten.

### Pelotalekuetara joaten al zara?

Orain ez naiz hurreratu ere egiten. Garai batean ilobek erremontean jokatzeko zutenean joaten nintzen, baina hauek ez ziren pelotari atera eta joateari utzi nion. Illobak pelotan jokatzeko ikustean pelotakadaren bat jaso eta min hartuko zutela iruditzen zitzaidan.

### Pelotaz gain beste zaletasunik?

Mendirra joatea oso dut gustoko. Igandero igotzen naiz Andatzara. Azken 7-8 urte hauetan zenbat aldiz igo naizen apuntatuta daukat. Ez etxean, Andatzan bertan baizik. Goiko txabolako eserlekuan hiltzarekin zulo txo bat egiten dut Usurbildik aterata igotzen naizen bakoitzean. Zenbatu nuen azken aldian 700 baino gehiago zeuden, baina aurretik zenbatzen hasi banintz... Andatza egunean bi aldiz igoko naiz, goizean eta arratsaldean.

**TABERNA  
JATETXEA**




**ANTXETA**

EGUZKITZA, 4  
TEL: 37 03 44  
20.170 USURBIL



**LABE-TXIKI**

**Ogi egin berria zure  
mahairako prest**



Kale Nagusia, 2  
Tlf 37 33 48  
37 09 13  
**USURBIL**



**BAZKARIAK  
ETA AFARIAK**

Santuenea 23  
Tlf. 36 27 34

## SANTUENEA



Alfontso Vidal

## Trafiko-seinaleetatik aparkalekuko marretara

Santueneko jendea kexu da azken aldi honetan, eskubaloi zelaia eta Ibai-Ondo elkar-tearen parean **bi trafiko-seinale falta** direlako. Hortik pasatzea debekatuta dagoela adierazi beharko luketen seinale hauek. Izan ere kanpoko jendea etortzean, nahiz eta debekatuta egon, hauek bide horietatik sartzen dira.

Bestalde, aparkalekuetako **marrak ez** dituzte **berritu Santuenean**. Hala ere, beste auzoetan marra hauek berri-tzen ikusi ditugu azken aste hauetan, eta Santuenera ere bisita egingo digutela espero dugu. Zubiak ez ote die beldurrik emango!...

Azkenik, eta nire tartearekin amaitzeko, auzoan zeresan haundia izan duen leku batez hitzegin behar dizuet. Lehen **Usurbilgo Eskubaloi Kirol Elkar-tearen egoitza** izandakoa orain **Usurbilgo txirindularien-tzat** izango da. Alde batetik albiste ona da, txirindulariak entrenatzeko leku ona delako. Baina beste aldetik, Santu-neko jai batzordeari ez dio poz haundirik eman. Hauek leku hau erabiltzen dute Santueneko jaietan txozna jar-tzeko eta hemendik aurrera ezingo dute hor jarri.



## URDAIAGA



Leire Atxega

## Zabor ontzia erre zuten Ostegun Santuan

Ostegun Santua, egunak dioen bezala egun berezia santutasunez bizi nahi dugunontzat. Hainbat eta hainbat pertsonak eguna santu usainarekin ospatu genuen, maitasunez, errespetoz, irrifarrez, famili giroan...

Beste batzuek ordea, Ostegun Santua ospatu behar-rean, **txikizio eguna** izan zuten. Pentsatzea libre omen da, baina pentsatzen duguna praktikan jartzeko zenbateko askatasuna dugu? Gazte batzuei **Leizekaldeko zabor ontziari su** ematea okurritu zitzaien. Pentsatu eta egin. Ontziak erraztasunez hartu zuen sua, baina inguru haie-tan zebiltzan **bi usurbildar gaz-tek** goiko depositora ur bila joan eta itzaltzeko denbora izan zuten. Txalogarria gazte hauen jokaera gertaera honen aurrean.

Iruditzen zaie honelako ekin-tzekin bere gizontasun gradua haunditzen dela. Zergatik eman ote zioten sua zabor ontziari? Txikizioa bultzatu zuten gazteak beren etxeetan gau-zak txikitzen, zabor ontziak erretzen eta nahi dutena egi-ten ohituta ote daude? Zer irabazten dugu biolentziaz jokatzeko dugunean?

Urdaiagatarrok maitasuna jarri nahi dugu sutan. Oraindik askatasunez, itxaropenez ta pakean bizi garen jendea badago Urdaiagan. Biolentzia dosiarekin ez dugu inor onar-ten lasaitasunezko paraje eder honetan. **Gazte, heldu!** Santutasunez joka dezagun besteen lurraldean, esku zabalekin hartuko zaitugu.

## ATXEGALDE



Zaloa Arnaiz

## Farola bakarria konpon-du eta bestea kendu

Auzoko kaleetan zehar nabarmena da kotxeen joan-etorria, eta honek, zentzu batean behintzat, eragina izaten du errepidean. Denbora-rekin errepidea kaltetzen dute, zuloak agertzen dira eta askotan oztopo bihurtzen dira



kotxe, bizikleta edo motoen-tzat. Hau dela eta, azken aste hauetan **galipota usaina** nabarmena izan da Atxegalde-ko hainbat kaletan. Izan ere, herriko langileak hortxe egon dira bideetan dauden **makina bat zulo galipotaz estaltzen**. Beraz, orain auzotarrok lasaia-go ibiliko gara gurpilak inongo zulotan sartu gabe.

Bestalde, Atxegalden plasti-ko batez estaliak eta inongo segurtasunik gabe **bi farola** hondatuta zeudela esan genuen lehengo batean. Badiru-di zerbait lortzeko **Noaual**n idaztea bezalakorik ez dela, **bietatik bat jarri** baitute. Bes-tea, berriz, ez dute jarriko. Gel-ditzen zen farola puska kendu eta zuloa tapatu baitute.

## TXOKOALDE

Iñaki  
LabakaBidea konpondu arren  
zabor euririk ez

Aurreko ale batean bidearen egoera kaxkarra ikusita kexa batzuen berri eman nizuen. Ba nonbait udaletxean **Noaual** irakurtzen dute. Izan ere egun hauetan herriko langileak **bidea konpontzen** aritu zaizkigu. Zuloak betetzen ahalagindu dira eta txukun utzi dute bidea. Lehen putzuak eta lokatza besterik ez zen izaten euria egiten zuenean. Euria egiten duenean jendeak eskertuko du, noizbait egiten badu, errogatibak ere haste-koak ziren.

Eguraldi bikainaz gozatuz aze **jende pila dabilen batetik bestera paseatuz**. Batzutan bide bazterretan jarri zituzten bi eserlekuetara joan eta ezin eseri. Zenbaitetan bat baino gehiagok hartuko luke gustora beste eserlekuren bat.

Bestalde, **Erroizpe elkartean** apirilaren 27an bazkideak **Biltzar Orokorra** izango dute. Aurreneko deialdia 11.30etan izango da eta bigarrena, berriz, 12.00etan. Bertan, zuzendaritza batzordeko kideek aktaren irakurketa egin ondoren, ekonomia kontuak eta etxearen jabearekin izandako epaiketaren inguruko berriak emango dituzte. Azkenik, zuzendaritza batzorde berria osatzeko eta nahi adina galdera egiteko aukera izango da. Ea bazkide asko agertzen den bilera garrantzitsu honetara.

## KALEBERRI

Nieves  
AranburuZaborra eta hautsa  
nagusi Kaleberrin

Aste Santuko oporrak joan zirene eta maiatzaren lehenan gertu dugu ja. Aste egunetan jairen bat denean zabor biltzaileek egun horietan ez dute lanik egiten ahazten zaio jendeari. Horregatik **zabor poltsak** ikusi ditugu **nonnahi** Aste Santu honetan. Egund batzuetan jendeak ezin zabor poltsak etxean eduki.

**Eguzkitza aldeko lanak** ere gero eta aurreratuago daude. Gogor ari dira lanean lehenbailehen amaitu nahian, baina niregana kexa batzuk ere iritsi



dira. Harriak, hormigoizko puskak edo behar ez duten guztia goitik kontainerretara botatzeko **ez dute hodirik erabiltzen**. Beste eraikuntza lanetan kontainerretara bideratuta hodi batzuk egon ohi dira. Eguzkitzako laneetan berriz, zuzenean botatzen dituzte behera. Honek hauts ugari sortzen du inguruan. Lehendik polena gutxi ez eta orain hango zikinkeria ere jasan behar.

**Burdingirik gabe** gelditu gara Usurbilen. Bi ere izan genituen eta orain alerik ez. Ez al da tristeza zerbaiten behar gaudenean kanpora joan behar izatea?

## KALEZAR

Pedro Mari  
MatxainZaharrak berri, dirua oraindik  
ez digute ekarri

Orain dela 626 urte sortu zen **Usurbilgo Belmonte** herria. Garai bateko Usurbil zaharra, Kalezar aukeratu zuen Enrike II.ak Usurbilgo Belmonteko udala jartzeko. Hortxe dugu **Kontzeju zaharra**, garai batean udaletxe izandakoa. Gero



Kalezarretik Elizaldera eraman zuten udala.

Geroxeago, III. Guda Karlistan **Joxe Antonio Urkia**, nire berraitonaren aita, alkate zelarik, **Santa Kruzek** Aiatik komando bat bidali zuen Usurbila 15 minutuko epean udalari **10.000 erreal** exigituz. Udaletxean dirurik ez zegoenez bere patrikatik jarri zuen diru hori. Orduan ere izango ziren hitz ederrak. Ondoren dena ahaztuta gelditu zen. Oraindik Usurbilgo udalak zor digun zerga da 10.000 errealeko diru kopuru hori. Honen ondorenean piska bateko babesa. Errepublikaren denboran, bazen **Kaxkonía** edo **Aizparrenen** "errepublikanoen zentroa". Hura ezagutu zutenak bizi dira oraindik. Hura ere desagertu zen aspaldi.

Orain, **batzokia** egiten ari zirenean bukatu baino lehen **su eman** diote. Lehengoek esaten zuten inbidia Potxoneko kantoiari zatitu zela, hori esan zutenak zerbait ikusi zuen.

# H erorrek esan



**Kattalin Arzallus**

Kaleberri

**N**oski. Hemengo gauzak eroste-aren aldekoa naiz. Bertako produktuak, herrikoak bultzatu egin behar ditugula iruditzen zait. Gainera, produktu ederrak ditugu hemen.



**Maitere Arzallus**

Kaleberri

**B**ai, noski. Hala ere, kanpoko zenbait gauza kalitate hobea-gokoak gerta daitezke, eta orduan horiek erosiko nituzke. Bestela, dudarik gabe, herriko produktuak erosiko nituzke.



**Manuel Prados**

Atxegalde

**N**ahiz eta nik erosketak inoiz ez egin, erosiko banu Usurbilgo produktuak erosiko nituzke, dudarik ez. Batez ere hemengoak direlako eta guk hauek bultzatu beharko genituzkeelako. Zerbaitegatik gara herrikoak, ez da?



**Loren Etxeberria**

Atxegalde


**B**ai, noski. Niretzat bertako produktua hobea izateaz gain, bertako gauzak bultzatu egin behar ditugula uste dut.



**Pio Vargas**

Etxealdia

**U**surbilgo herritarra naizen aldetik, nik behintzat bertako produktuak erosiko nituzke. Urte asko daramatzat hemen eta ez daukat dudarik hemengo gauzak bultzatu behar ditugula.



Usurbilgo base-rietako produktuak erosteko prest egongo al zinateke?



**Ina Borda**

Atxegalde

**N**ez nuke dudarik izango, herriko produktuak erosiko nituzke. Bi arrazoiengatik gainera: alde batetik bertako, herriko produktuak direlako; eta bestetik, kalitate aldetik ere hobea-gokoak direlako.



**Garbiñe Salsamendi**

Kaleberri

**N**ik herriko produktuak erosiko nituzke, baina kontuan izan behar da kalitate-prezio erlazioa. Normalean kanpoko merkeagoa izaten da, baina bertako produktuak kalitate haundiagoak. Beraz, kalitatea ginetik jartzen badugu, Usurbilgo gaiak erosi beharko genituzke.



**Mikel Zubelzu**

Kaleberri

**H**erriko produktuen alde egingo nuke, baina beti kalitatea kontutan izanik. Alegia, lehengo produktuen kalitatea zein den ikusiko nuke, eta geor gerokoak. Hori bai, kalitate berdinen aurrean, etxekoa.



**TXIRIBOGA  
TABERNA**

pintxoak, bokatak  
eta plater konbinatuak

Irazu kalea, 3 - Tlf. 37 00 13

**GALARRA  
GARRAIO**

\* LUR ONGARRIAK  
\* ZABOR BILKETA  
\* ZISTERNA BEREZIAK

☎ 37 01 46



## Ongizateko aholku batzordea sortu da

**O**ngizateko aholku batzordea martxan da jadanik. Joan den apirilaren 9an pleno aretoan bildu ziren lehen aldiz, eta hemendik aurrera hilean behin bilduko da, hilabete bakoitzeko azken asteazkenean. Aholku batzorde honetan egongo dira besteak beste Kaleberriko Gure Pakea, Santuneako Gure Elkartea eta Aginagako Arrate zaharren egoitzako ordezkariak, Guraso Eskolakoak eta Usurbilgo sendategikoak. Hala ere batzorde hau irekia izango da.

Ongizateari bultzada ematea da udalaren asmoa. Herriko talde batzuk, era batean edo bestean, urtean zehar ongizate arloan zerbait egiten dute, hitzaldiak antolatu, adinduentzat bidaiak... baina elkarren berri ez dute izaten. Batak besteak zer egiten duen ez daki, bakoitzaren arazo eta kezka zein diren ez daki uda-

lak. Hori da saihestu nahi dena. Herrian zehar, ongizatearen inguruan dauden beharrrak zein diren jakiteko bide bat izango litzateke aholku batzorde hau.

Ongizate mailan bi arlo ezberdin daudela dio **Izaskun Maiz** zinegotziak. "Alde batetik arlo pribatua legoke. Jendea laguntza eske etortzean bezala, zinegotziek eta asistenta sozialak jorratu beharreko gai oso pribatuak. Baina ongizatearen barnean beste lan mota bat badago, herriko talde batzuk egiten duten lana. Guk hauekin ditugun harremanak urriak dira, urtean zehar ez gara biltzen. Horregatik, talde bakoitzeko ordezkariekin aholku batzordea osatzea beharrezkoa ikusi dugu. Eguneroko gaiak, ongizatearen arloan udalak hartu behar dituen erabaki batzuk ikuspegi ezberdinetatik tratatzea da gure asmoa."

Epe luzerako proiektua da ongizateko aholku batzordea. **Xabier Pikabea** zinegotziaren ustez, "piskanaka-piskanaka lan eginez datorren urterako egitasmo serio bat finkatzea da gure helburua. Adinaren arabera bakoitzaren arazoak, bata bestearekiko harremanak, antolatu beharreko ekin-tzak... mila gauza daude lantzeko."

Udaletik datozkigun beste berri batzuk

Kutxa fundazioak, Aranzadi Elkartearen babespen eta zuzendaritzapean, Euskal Herriko hainbat patrimonio eraberritzeko egitarau bat bultzatu nahi du 19 urtetik beherako bazkideei denboraldiko lana eman nahian. Usurbili dagokionez, **Kalezarko ermitaren ondoan dagoen "humilladero"** izenekoa **eraberrituko da**. Udalak, parrokiaren onespenerekin, baiezkoa eman du.

Bigarren aldiz, **Zumarte Musika Eskolak** erabiltzen duen "Villa Pilar"en atzekaldean dauden baratza edo lur-zatiak erabili nahi dituztenentzat **zozketa** egitea erabaki du udalak. Lehen zozketara ez zen inor aurkeztu.

Azkenik, **herriko hainbat kale eta bide asfaltatzeko** (Aginaga kaxkoa, Aginaga- Izpira, Kaparotz- Urkamendi, San Ignazio auzoa eta Haraneko aparkalekua nahiz pista) **konkursoaren deialdia ireki da**.

Josu Aranberri



## MENDIGAIN INMOBILIARIA

Eguzkitzako etxebizitzak,  
lokalak eta garajeak

Palazio, 28-1.  
Donostia 20.008

Tlf 21 79 86

*Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!*

## USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER  
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4  
Tlf 37 08 78

20170  
USURBIL

## 191 baserri Usurbilen!

**1** 91 baserri hauen berri izateko, iazko martxoan eta azaroa bitartean herriko bi gazte ibili zitzaizkigun baserriaz baserri, **Udalak** eta **Behemendi Mendi Nekazari Elkarteak** eskatutako **azterketa sozio-agronomikoa** burutzeko datuak biltzen. Helburua, baserrien (Zubietan Donostia partekoak barne) egoera eta arazoak ezagutzeko izan da: biztanleak, lur kopurua, banaketa, jarduera mota, tresneria...

Baserri hauen egoera asko aldatzen da batetik bestera, eta horren arabera, banaketa hau egin da:

- **8 erdi eroriak:** Altzu, Arrillaga txiki, larbe behekoa (Murgil), Iruzubieta, Puela zahar, Goikoetxe (Zubietan), Arpidegieta, Urdaira haundi, eta Aitzmurgil.

- **14 hutsak:** Arbitza, Arrate, Aranburu, Ibindos, Isostegi, Itzao, Dranbana, Mapil, Petritza berri, Puela berri, Udarregi, Patronanea, Egiolera txiki, Gorostidi eta Konportonea.

- Baserri lana baztertu eta **jarduera berri bati ekin diote-**

Behi haragia	Behi esnea	Sagarra (frutak)	Barazkiak	Arkumea	Zekorrak
45 baserri	37 baserri	36 baserri	31 baserri	24 baserri	7 baserri
%31	%26	%25	%27	%17	%5

Koadroan ikusten da zein produktu mota egiten den Usurbilen: Kontuan izan behar da salmentan aritzen diren 106 baserri hauen artean badirela produktu bat baino gehiago ekoizten dutenak.

**nak, 10:** Aialdena berri, Almandegi berri, Araeta, Etxebeste, Iruin, Mutiozabal, Saltxipi, Sekaña, Txikierdi, eta Ugarte.

Hauetz gain, **21k egun ez du baserri jarduerarik**, etxebizitza arrunt bihurtu baitira. Ikerketak 143 baserrietako datuak erabili ditu, maila ezberdinetan bada ere, hauetan baserri aktibitate baitago: 39 Aginagan, 42 Kalezarren (10 Txikierdin), 12 Kaxkoan, 25 Urdaiagan (5 Santuenean, 4 Txokoalden) eta 25 Zubietan. **Hamar herritarretatik bat baserrian bizi da**

550 usurbildar bizi dira baserrian, 10 biztanletatik bat, ale-

gia. Baserrietik kalerako joera jakina da, batez ere gazteen artean. Honen erakusgarri dugu **29 urte bitartekoak kalean %38a** direla, eta **baserrietan aldiz %28a**. Beraz, baserriko biztanlegoa, populazio orokorra baino zaharragoa da.

Batezbeste, baserrietako **etxebizitza bakoitzean 4 senide** bizi dira. Aipagarria da senide kopuru haundiena duten baserriak **Txokoaldekoak** direla. Hemen, batezbestekoa 7 senidekoa da.

143 horien artean gehienak baserriaren **jabeak dira, maizter** 15 besterik ez dira. Azken hauek alde batera utzita, baserri bakoitzak **batez beste 5,7 hektarea** ditu (17 golde), baina alde haundia dago baserri batetik bestera, izan ere, badira 30 hektarea baino gehiago dituzten bi baserri: **Arburu** (33) eta **Aizpurua** (70). Bestalde lurrik gabeko 17 baserri ere badaude.

143 baserrietatik **106k** esnea, haragia, barazkiak e.a. **salmentarako** ekoizten dituzte, eta gainontzekoak berriz etxerako bakarrik.

Haragia eta esnea dira gehien ekoizten direnak. **larbe baserriko Damaso Lizasok** gogoan du herrian 1000 **esne-behi buru** zeudeneko garaia.



*Uxoia Iparragirre Zubietako Barrenetxe goikoa baserriko oilaskoak hazten dituzten Lumagorri Elkartearen dago.*

lkerketan jakin ahal izan denez, egun **500 eskas** dira, (batezbeste 14 buru baserriko). **Larre-behiak** berriz egun **250 inguru** dira (5 buru batezbeste baserriko).

**Badira baserri lanetik baka- rrik bizi direnak, 18** hain zuzen: Araundi, Arburu, Daldagorri, Egiluze haundi, Egioleta haundi, Etxetxo, Errikoetxe, larbe, Igartzazabal, Irigoien, Irigointxo berri, Mapil, Lertxundi, Olarri, Saria haundi, Troia, Urtinea eta Zuasti.

Maila ezberdinetan bada ere, baserri lanetan diharduten baserri kopurua ez da txantxetakoa. Beraz, nekazaritza eta abeltzaintzak badute garrantzia herrian. Baina garai haue- tan bizi ditugun aldaketa ekon- omikoak, baserrietako popu- lazioaren zahartze prozesua, eta belaunaldi berri eza direla eta, azterketak jasotzen due- naren arabera, 106 baserri horietatik, **52 dira etorkizunean jarraituko dutenak.**

Damaso  
Lizaso: "Gaur  
egun txuletak  
ez dira aber-  
tzaleak"

Herriko baserritarrei etorkizu- na nola ikusten duten galdetu diegu: Zuasti baserriko **Maria Pilar Arroio** eta **Pedro Mari Aizpurua** esne ekoizpenean aritzen dira. Bost seme-alabek kanpoan lan egin nahiago dutela diote: "**Baserri lana oso lotua baita, ganadua egunero jatzi, jatenak eman... bizitza sanoagoa da baina hemen deskantsu gutxi dago**". **Maria Pilarrek** laguntza gehiago eman beharko liratekeela dio: "**Lana errazteko edozein erra- minta erosteko ere, ez dute laguntzarik ematen. Esnea gai- nera oso merke dago, kalera eramaten bada zeozer gehia-**

*Zubietako Zuasti baserriko fami- lia. Esne-ekoiz- penean dihar- dute erabat.*



*go irabazten da, baina jende- ak nahiago izaten du poltsa edo kajakoa. Guk gehiena "esnezaleari" ematen diogu, eta horiek erdia ordaintzen dute".*

**larbe baserrian** ere esnea ekoizten dute, salmenta berriz, beraiek zuzenean egiten dute, pasteurizatu eta poltsaratu ondoren. **Damaso Lizaso** ibil- tzen da esne banaketan eta bi semeek eramaten dute etxeko ganaduaren martxa.

Orokorrean **baserritarren etor- kizuna beltza ikusten duela dio**: "**Ganadu lanetan ibiltzen garenok etorkizunean izango dugun arazo larrienetariko bat lur falta izango da: Usurbilgo kasua ez bada ere, orokorrean baserri lanetarako gero eta lur gutxiago dago**". Herriarren artean **bertako produktuak erosteko kontzientzia zabaldu** behar dela aipatzen du **Damasok**: "**Haragia orain 30 urteko prezioan dago, nahiz eta harategian garai hartan baino bi edo hiru aldiz gehiago ordaindu. Gainera orain haragi asko kanpotik ekartzen dute; gaur egungo txuletak ez dira abertzaleak!**"

Baditugu ordea baserri lanari etorkizuna ikusten diotenak ere. **Gazteak** dira, eta baserria dute bizileku eta bizibide. **Araundi baserriko Xabier Zu- daireren** hitzetan "**gaur egun gauzak ez dira errazak base- rrian, gainera gazteok familian belaunaldi ikuspegi desber- dinak bizi ditugu**". Bere ustez,

*"Lana errazteko moduak ere badaude, eginbeharrak bana- tzeko **elkartzea**, adibidez".*

Baserri lanak eskatzen duen dedikazioa aitortzen dute, baina bere alde onak baditue- la gogorarazten dute. **Base- rriak lana antolatzeke askata- suna** ematen duela diote: "**Ordutegia zerorrek erabaki- tzen duzu; ez dago nagusirik, antolatzea da kontua**" dio **Daldagorri baserriko Mikel**

Mikel  
Orbegozo:  
"Baserri  
lana ez nuke  
aldatuko,  
hemen ez  
dago estre-

**Orbegozok. Troiako Imanol Zarauzen** ustez "**gurasoekin ondo konpondu ezkerre, aste- an lan egin eta asteburua jai egiteko aukera izaten da**".

Gazte hauek ez dute eginda- ko aukeraren damurik. Beraiena beste edozein lanen antzekoa omen da: "**Lagunek baserrian jai eta aste lan egin behar dela esaten didate, baina ez nuke aldatuko; hemen ez dago estresik**". Estresa azken urteotan egune- roko mamua dugu. Bapatean denok baserritar bihurtzea gehiegitxo izango dela eta, hasiko al gara, gutxienez herri- ko baserriak ezagutzeko buel- tatxoa egiten?

Olatz Altuna

## J. R. Zubimendiren iritzi artikulua biltzen dituen liburua kalean

**Joxe Ramon Zubimendi** zubietarrak “Bidezkoa” izeneko liburua kaleratu du Sendoa argitaletxeko Auspoa bilduman. Euskara batuan bilduma honetan argitara eman den prosazko lehen lana da euskaltzain urgazlearena. 1994. urtetik 1996ra Diario Vascon publikatu zituen artikulua jaso ditu bertan. Mota guztietako gaiak ikutzen ditu udaletxeko langileei euskara trebatzeko ikastaroa ematen ari den zubietarrak: Olentzeroren esanahia, Ernioko uztaiak, euskara batuaren ajeak...

Laister batean beste liburu bat kaleratzeko asmoa duela azaldu digu **Joxe Ramon Zubimendik**.



## 36 adinduentzako edukiera lukeen Zahar-egoitza jarri nahi dute



Usurbilen **zahar-etxe pribatua** egiteko asmoa agertu dute San Ignacio klinika eta Matia Calvok. Apirilaren 10ean **Joxe Antonio Altuna** herriko alkatearekin bildu ziren beraien asmoen berri eman eta udalaren eritzia jakin nahian. Zahar-etxe hau **Ugarten** jarriko lukete, orain dagoen ikasleen erresidentziaren ordez. Dirudienez Ugarteko nagusi eta bi kliniken arteko negoziazioak nahiko aurreratuta daude. **36 adinduentzako** edukiera izango luke; 26 iraunkorak lirateke, gau eta egun nahi adina edukitzeko; beste 10ak beriz, adinduak egun jakintan edo egunaren momentu zehatz batean uzteko.

## Judo Taldeak 34 domina irabazi ditu Gipuzkoako Txapelketan

MAILA	URREA	ZILARRA	BRONTZEA
<b>17 urte azpikoak</b>	Andoni Aizpurua, Alex Sanchez, Gaby Sarasola, Josu Arruti, Vanesa Arroyo, Raquel Lopez eta Karen Ortiz.	Iban Etxaniz, Jaime Torre eta Josu Olaizola.	Iñigo Etxaniz, Eñaut Arriaga eta Alfredo Balbuena.
<b>19 urte azpikoak</b>	Vanesa Gebara, Anartz Aizpurua eta Oskar Sanchez.	Vanesa Arroyo, Raquel Lopez, Andoni Aizpurua eta Jaime Torre.	Alex Sanchez, Carlos Torre eta Josu Olaizola.
<b>21 urte azpikoak</b>	Ibai Peña eta Xabier Urkizu.	Mikel Ponga.	
<b>Seniorrak</b>	Aiora Arrozpide, Ibai Peña, Alvaro Mendibe, Mikel Ponga eta Iker Ostolaza.	Vanesa Gebara.	Erika Gebara eta Garazi Goikoetxea.

Apirilaren 5 eta 6an Gipuzkoako Torneoa ospatu zen eta Usurbilgo taldeak 16 urrezko domina, 10 zilarrezko eta brontzezko 8 lortu zituen. Taldetako sailkapenean lehenengoak izan dira.

Emakumezkoek guztira 9 domina ekarri zituzten etxera (urrezko 5, zilarrezko 3 eta brontzezko 1). Gizonezkoek aldiz, 24 domina eskuratu zituzten (urrezko 12, zilarrezko 6 eta brontzezko 6).

## EURIA EGITEKO ERREGUTIBAK

Euri eskasiak jadanik bat baino gehiago kezkatzen hasi du. Hori dela eta, apirilaren 15, 16 eta 17an euria egiteko **errogatibak** egin dira **Salbatore elizan**. Hainbat pertsonak hauek egiteko eskatu zien erretoreari, eta jende mordoxka etortzekoa zela jakinda, egitea erabaki zuten. Garai batean santuarekin kalera ateratzen baziren ere hauek egiteko, oraingo honetan 100 pertsonetik gorako eskaerak ez dira Salbatore elizatik atera. Errogatibak ez dira aspaldian (1945-50) gure herrian egin, behar bada beharrik ere ez zegoelako seguruenik. Erregu guzti hauek eta gero ikusiko ote dugu lainorik zeruan?



**H**erriko soldaduek lanari ekin zioten joan den apirilaren 13an Intsumisio kalean. Izan ere **100 pertsona inguruk** hartu zuten kale hau sakela bete asmoz. Hauentzat afaria prestatu eta zerbitzatzea ez zen txantxetako lana izan. Giro aparta sortu zen, txalaparta, bertso eta trikitixa hotzak ahazteko eta karaoke kantaldiak txanpaina irabazteko

## 82.540 KILO BEIRA

Beira ontziratzen duen zentruak 1996an bildu zuten beira kopurua eza-gutarazi berri du. **Usurbilen 82.540 kilo beira** bildu zen joan den urtean, guzti hau herriko leku desberdinetan kokatuta dauden 15 ontzitan.

## TAPIA ETA LETURIA BAND

Beren bigarren diskoa laister dugu kalean "Ero" izenburupean. **Jokin Eizagirre** "Txitxo"k egin du diskoaren azalaren diseinua eta **Xabier Eizagirre** "Wingel" aritu da maketatzaile lane-tan.

## LANUZTEAK LUZURIAGAN

**Victorio Luzuriagako** langileek mobilizazioak burutu dituzte azken bi asteetan. Apirilaren 7an biltzar nagusia egin ondoren **apirilaren 11 eta 15ean ez zuten lanik egin** eta apirilaren 17rako ere lanuztea iragarrita zuten. Hala ere, hilaren 16an zuzendaritzarekin biltzekoak ziren, nahiz eta sindikatuetakordezkariek ez zekiten haiek azalduko ziren ala ez.

Luzuriagako arduradunek lehendabizi produktibitatea, malgutasuna eta langileen mugikortasunaz hitzegi nahi dute lan hitzarmena egiterakoan. Langileek, aldiz, lan hitzarmena bere osotasunean landu nahi dute, hiru atal horiek bakarrik ez.



**F**rantziako eta Alemaniako telebistako kama-rak Andatzaren magalean ibili ziren apirilaren 5ean. **Igartzazabal** baserriaren gaineko lurretan, grabaketa lanetan aritu ziren goiz eta arratsalde. Ze grabaketa? Goizean **Joxan Artzeren** olerki irakurketa grabatu zuten, arratsaldean, berriz, **Joxan** eta **Jexux Artzeren** txalaparta emanaldi txiki bat. Hauekin batera, iparraldeko **Beñat Axari** ere aritu zen klarinetearekin. Gogoratu, orain dela gutxi **Gotañe-Iribarnen** ikuskizun polita eskaini zutela protagonista berberak.



Arg: Ekaitz

**P**asa den apirilaren 12an, Zumartek antolatutako **lehen kontzertu pedagogikoa** entzuteko aukera izan genuen Salbatore elizan. Bertan, **Zumarte Abesbatzaz** gain, **Errenteriako Oinarri abesbatzak** ere parte hartu zuen; biak **Imanol Elizazuren zuzendaritzapean**. Ikuskizunean era guztietako kantak entzuteko aukera izan genuen, sehaska kantutik hasi eta abesti salseroetaraino. Amaieran, bi abesbatzak batera abestu ondoren, Zumarte Abesbatzako kide batek oroigarri bat oparitu zion Oinarri abesbatzari.



## KIROL KOPLA



**Aitor  
Pikabea**

**B**ada jendearengan, txirindularitzan pertsonak mitifikatzeko joera. Mitifikazio hau, azken urteotan, txirindularitzat izan dituen goi mailako kirolariak direla eta datorrigu batipat.

Mitifikazio honen errudunak aztertzeke garaian, azken urte hauetan, txirindularitzak komunikabideetan izan duen gorakada eta gizabanakoak mitoak sortzeko azaltzen dugun beharra aipatuko nituzke.

Kirol honetan (aspaldian bada ere) jardun garenok ordea, badugu kirol honekiko beste ikuspegirik: Txirindularitza, talde ikuspegitik alegia. Egia da, txirindularitzan, azkenean pertsona batek irabazten duela laisterketa. Lehiaketa horretan irabazitako sari guztiak, taldeko guztien artean banatzen direla ez da esaten ordea.

Adibiderik onena, aurtengo Euskalerriko itzulia dugu. Azkenean Zullek irabazi badu ere, kontuan hartzekoa da ONCEK itzuli honetan izan duen papera. Etapa guztiak hasieratik kontrolatu dituzte, pelotoia mugitu, azkenean bere taldekide batek itzulia irabazte zezan. Ez dira ordea horretan gelditu. Behin azken kilometrotan ere, aukera ikusten bazen Jalaberti helmuga prestatzen zitzaion. Beraz, bai Zulle eta Jalabertek lorturikoak talde lanaren ondorio eta sari dira eta ez ekintza indibidualen ondorio.

## "Interpueblosetan": Zizurkil-Usurbil

**H**amarkada honen hasieran bizi izan ditu Usurbilgo pelotak bere unerik gozoenak. Herri arteko txapelketako finalera iristea ohitura bihurtu zen 90. hamarkada honen lehen erdian. 1997. urteko txapelketarako helburuak ordea, zeharo ezberdinak dira. Lehenengo kanporaketan Zizurkil izango dute aurrez-aurre. Joaneko partidua Zizurkilen apirilaren 18an 21.00etan eta itzulikoak, berriz, apirilaren 26an Lasarten Michelingo frontoian.

**Enrike Huizi** prestatzailearen arabera beraien helburu nagusia bigarren kanporaketara iristea da. *"Zizurkil gainditzea ez da ezinezkoa. Ez ditut asko ezagutzen, baina hasiera batean aurrera egiteko aukerak baditugula uste dut. Bigarreneira iristen bagara zozketak esango du aurrera egingo dugun ala ez. Gu baino herri indartsuagoak badaude. 27 herrik eman*

*dute izena eta gu erdi parean gaude. Garai batean bezala, finalera iristea ezinezkoa da aurten."*

11 pelotarik osatzen dute taldea. Kadeteetan **Jon Arruti, Jon Olaizola** eta **Mikel Olasagasti** daude. Jubeniletan **Mikel Ibarreta, Imanol Zarautz "Troya", Mikel Kastresana** eta **Arkaitz Izagirrek** jokatu dezakete. Azkenik nagusietan **Imanol Matxain, Arkaitz Portullarrume, Enrike Huizi** eta **Iñigo Olaizola** arituko dira.

Aspaldi honetan eskuetatik justu samar dabilzala esan digu **Enrike Huizik**. *"Azken hilabete hauetan 11 pelotarietatik erdiak eskuetatik gaizki gabilta. Batak ez bada besteak du mina. Hala ere eskeretzekoa da **Kima masaje Iekuaren** lana. Beraiekin akordio batera iritsi ginen eta gurekin lan ugari egiten ari dira **Xabier Carbayeda** nahiz **Goio Martin**".*



Arg: Ekaitz

*Honako irudi hau errepikatzekoa izango dela dio Enrike Huizik Oraingo helburua lehen kanporaketa gainditzea da*



## URTINEA LORATEGIA

*Lore eta lore landareak*

San Esteban  
Tlf. 36 2255



## TABERNA

Pintxo bereziak  
eta  
giro aparta



Irazu kalea, 9  
Tlf: 36 02 17

## Gure Pakea: jubilatuentzako aukera ederra

**G**ure Pakea Zahar egoitzak denbora asko daroma jubilatuen biltoki izaten. Eta jende askok ez badaki ere, ekintza askoren gunea bada egoitza hau.

1979. urteko maiatzaren 5ean Usurbilgo jubilatuta eta pentsionista talde batek bilera bat egin zuen. Bileraren helburua denbora pasatzeko toki baten beharra eztabaidatzea zen. Ekainaren 7an beste bilera bat egin zuten eta bertan era honetan osatu zen elkartearen zuzendaritza: lehendakaria **Antonio Guerra**; lehendakariordea **Martin Odriozola**; idazkaria **Sebastian Aranburu**; kuxazaina **Manuel Goenaga** eta bokalak, **Juan Garcia**, **Eustakio Ibargoien** eta **Konsuelo Otegi**.

Gauzak zehaztuta, azkenean udalak lokala utzi zien (lehen eskola zena) eta Matia Calvo Fundazioak berriz, oinarritzko materiala. Honela, 1980. urteko otsailaren 24an Gure Pakea Zahar egoitza inauguratu zuten.

400 bazkide

Gaur egun, 17 urte beranduago, indarrean dabil elkarte. 400 bazkide ditu eta ekitaldi ugari egiten dituzte bertan. Gizon eta emakumeen kopurua berdintsua da, baina argi dago zaharrenak emakumeak direla. Aurten 80 urte betetzen dituz-

ten 12 pertsonetatik, 10 emakumezkoak dira.

Zuzendaritza, berriz, horrela dago antolatuta: lehendakaria, **Begoña Maiztegi**; lehendakariordea **Kandido Arrojeria**; idazkaria **Joxe Urkia**; kuxazaina **Nikolas Izeta**; eta bokalak, **Pepita Lurgain**, **Jose Mari Beloki**, **Rosario Barreda** eta **Inaxio Aizpurua**.

Ekitaldi ugari

Sortu ezkerotik, hainbat pertsona pasa dira elkarte honetatik. Baina zer egiten dute bertan? **Joxe Urkia**, elkarteko idazkaria denak azaldu digu: "gauza asko egiten ditugu. Alde batetik, eskulan tailerrak daude. Rosario Barredak ematen ditu klaseak eta emaitzak oso onak dira, Santixabeletan antolatzen dugun erakusketa ikustea besterik ez dago. Bestetik, txapelketak ditugu: tutean, punttuan, musean, igel

jokoan... denetatik. 80 urte betetzen dituztenei ere omenaldia egiten diegu irailan. Ibilaldi neurtura ere joaten gara, eta hau gutxi bada, ibilaldiak ere egiten ditugu. Pasa den apirilaren 12an Lourdesera joan ginen".

Dirua ederki aprobetxatu

Gure Pakea Elkarteak Foru Aldunditik eta udaletik jasotzen du laguntza, baina askotan hau ez da nahikoa izaten: "Foru Aldundiak iaztik laguntzak murriztu egin ditu eta orokorrean ez zaigu diru askorik geratzen, horregatik errifak ere aterara behar izaten ditugu. Kontu-an izan behar da gure bidaiak inguruko merkeenak direla, eta hori horrela izateko makina kontu egin behar ditugu".

Egoitza berria

Badirudi aurten hasiko direla Zahar egoitza berriaren obrak anbulatorio zaharrean. Gustora daude elkarrekoak hori dela eta: "gogo haundia daukagu bertara joateko, izan ere, orain gauden tokian, Eguzkitzan, ia ez baitaukagu ezertarako tokirik. Egoitza berrian liburutegi aeta beste gelak ere jarri nahi ditugu, guztiok gustora eta lasai egoiteko".

Idoia Torregarai



Gure Pakea Zahar egoitzako jubilatuek ekitaldi ugari egiten dituzte. Argazki honetan, egoitzako zenbait kide pasa den urtean Beasainen egin zen ibilaldi neurtuan.




ARRAINDEGIA  
**PELLO**

Arizeta Kalea, 1  
Tif 36 21 64  
USURBIL



BEMARAKO  
BEMARAKO...  
BEMARAKO...

**Igandetan ganba-ziri mundialak!**



Pintxo eta bokata  
goxo-goxoak

Eguzkitza

## Larrua Truk: "Gure estiloa aurkitu dugu disko berrian"

**P**asa den apirilaren 9an Larrua Truk taldeak (Haritz Harreguy, Joseba Agirresarobe, Josu Errekondo eta Jexux Agirresarobe) "Aurpegi biren jabe" diska atera du merkatura. Lan berria ezagutzera emateko, datorren apirilaren 18an Aginagako eliza zaharrean kontzertua eskeiniko dute.

**Zergatik aurkeratu duzue izenburu hau?**

Gizarte honek bi aurpegirekin jokatzeko duela. Komenintziaren arabera jokatzeko du gizarte honek. Komeni den aurpegia azaltzen duzue; bi alde nabarmen dituen aurpegia da. Diska osoa gai honekin lotua dago, bai eta portada ere. Maite Agirresarobek egin du.

**13 kanta, 55 minutu baino gehiago... lan asko da. Nola egin duzue hau guztia?**

Guk egin dugu dena. Elkarren estudioetan grabatu dugu eta Haritz izan da teknikoa.

Aurreko KDa grabatzen ari ginen jende asko etortzen zen gu ikustera, eta horrek deskonzentratu egiten gintuen. Horregatik oraingo diskoan lanean buru-belarri sartzea erabaki genuen, inungo etenik gabe. Bi hilabete t'erdi pasa ditugu grabatzen astebukaerero. Gogorra izan da.

**Ze desberdintasun dago aurreko diska eta honen artean?**

Oraingoa askoz ere landuagoa da. Gure estiloa finkatu egin dugu bertan eta konfiantza haundiagorekin jotzen dugu. Teknikoki ere osoagoa da. Adibidez, lehenengoan ahotza grabatu eta aurrera joaten ginen. Orain ordea lau aldiz grabatu dugu. Hitz batean estaeko, profesionalagoa da. Gainera, "Kirikoketa" txalaparta taldearekin batera ere kanta bat grabatu dugu.

**Zuen musika nolabait definituko al zenukete?**

Argi dago zenbait talderen

eragina badugula, baina ez dugu nahi gure musika definitu, gero bertan lotzen zaituztelako. Jendeak diskoa entzun dezala eta berak esango du ze motatako musika den eta zeinen antza dugun.

**Eta diru kontuak?**

Oihuka disketxeak ordaindu du dena. Aurreko KDa gure poltsikotik ordaindu genuen, pentsatu genuen hobe zela maketa formato honetan ateratzea. Orduan Oihukakoek bide horretatik jarraitzeko aukera eman ziguten, nolabait bidea jorratzen hasi eta nondik nora gindoazen ikusteko. Diska horretatik 1.000 kopia saldu ditugu eta orain Oihukakoek atera nahi izan dute gure lana.

**Zaila al da taldea ezagutzaraztea?**

Bai, dudarik gabe. Kontzertuak emateko zirkuito bat aurkitzea oso zaila da. Normalean guk deitzen dugu tokietara, baina beste batzuetan deitu ere egiten digute. Oso garrantzitsua da beste taldeak ere ezagutzera, horien bidez bidea ere ireki egiten zaizulako. Bestetik, promozio ona egitea ezinbestekoa da diska bat ezagutara emateko. Baina betikoa, dirua behar duzu horretarako. Hala ere, oraingoan promozio hobea egiten den. Aurkezpen kontzertua behintzat Aginagako eliza zaharrean egingo dugu, asko gustatzen zaigu tokia.

Idoia Torregarai



*Larrua Truk taldeak "Aurpegi biren jabe" diskoa kalera atera berri du. Bere aurkpena egiteko, Aginagako eliza zaharra aukeratu dute, kontzertuak emateko toki oso aproposa dela iruditzen baitzaie.*

**Senideren bat herritik kanpo baduzu, oparitu iezaiozu Noaia!ko bazkietza. Herriko azken berriak jasoko ditu.**

**ARGENTARIA FONDRENTAS**

Atera iezaiozu errentagarritasunik haur zure diruari 2000-IV-15 arte



CAJA POSTAL

Miloi batekin  
11.250 pta  
hiru hilabetero



ARGENTARIA

97-IV-31 baino lehen bazatoz, garant



Ezaguna da oso Udarregi bertsolariari eskainitako monolito hau. Iaz bertsolariaren 100. urteurrena ospatu genuen eta zenbait ekitaldi hementxe bertan egin ziren. Baina ba al dakizue

## Nork egin zuen monolito hau?

Erantzuna ematera ausartzen baldin bazara, idatzi eta bota gure kale nagusiko buzoira apirilaren 27a baino lehen.

Horrela, **Sekaña** jatetxean zozketatuko dugun bi pertsonentzako afaria irabazteko aukera izango duzu.





**Maria Dolores Azpillaga** pozik eta irrifartsu agertu zen **Bordatxora** gure lehiaketako afariaren bila. "Azken momentuan bidali nuen erantzuna, eta hara, zortea izan dut". Beste baten konpainian afaltzera joateko aukera duzu orain, **Maria Dolores**.

**Harane futbol zelaia** dela eta ez dela, zenbaki kontuak argitu beharrean gaude. Zelaia **1985**. urtean bukatu zuten eta ordu ezkerro jarri zitzaion ofizialki izen hori. Metro karratuei dagokienez, berriz, izkinako zatia eta dena kontuan hartuta **6.678 m<sup>2</sup>** ditu (106 x 63).

Haranen gelditu gabe aurrera jarraitu eta kilometro batzuk eginda **Egioleta sagardotegira** iristen gara. Oraingo honetan **Noaua!**ren kontura bertan afaltzeko aukera izango duena **Jone Eizmendi** da. Zu zara lehiaketako zorteduna 19. ale honetan. Zorionak eta on egin!

komikia




Karlos Zabala

kalezarra  
karrozeria



Txapa konponketa eta kotxe pinaketa

Ugaldea industrialdea  
USURBIL Tel. 37 2609



Altzarienezaharberritzea pintaketa,  
dekorazioproiektuak

MaiteAgirresarobe

36 21 39

GONZAI  
EHORZKETAK



Era guztietako  
zerbitzuak  
**EGUNEKO**  
**24 ORDUETAN**  
Olarriondo, 5- 8  
Tel. 3621 63

## APIRILAK 18 ostirala

- **Larrua Truk** taldeak "Aurpegi biren jabe" disko berria aurkezteko, **Aginagako eliza zahar**rean kontzertua eskeiniko du **Folkcore** taldearekin batera. Gaueko **23.00**etan.

## APIRILAK 19 larunbata

- **Larrua Truk** taldeak kontzertua emango du **Zarautzen**.

## APIRILAK 20 igandea

- **Andatza KKE** mendi ibilaldia antolatu du. Trabesia **Azpeitia-Usurbil** izango da. Irteera goizeko **6.00**etan izango da, **frontoitik**.

## APIRILAK 21 astelehena

- **Euskal Herria Askatu!**ren kontzentrazioa errotondan. Arratsaldeko **20.00**etan.

## APIRILAK 25 ostirala

- **Euskal presoak Euskal Herrira!** ekartzeko eskaerarekin, Usurbilgo Amnistiaren Aldeko Batzordeak **borroka eguna** izendatu du gaurkoa. Hau dela eta, eguerdiko **12.00**etan **kontzentrazioa** egingo da udaletxe aurrean. Eta arratsaldeko **20.00**etan **manifestazioa**.

## APIRILAK 26 larunbata

- **Presoen aldeko barrikotea** egingo da Aitzaga elkartearen. Gaueko **21.00**etatik aurrera.
- **Arrate Zahar egoitzak** itera antolatu du. **Leitza, Olite eta Iruñeara** joango dira. Irteera goizeko **9.00**etan izango da, Aginagatik.



Goiko hauen antzera **Santixabel bezperako danborradan** parte hartu nahi baldin baduzu, **apirilaren 19an** izena eman dezakezu. **Ageri Alde ikastetxean**, arratsaldeko **16.00**etatik aurrera. Bertan parte hartzeko, usurbildarra izan behar duzu, 16 urte baino gehiago izan eta gutxienez entsaioen erdira etorri behar duzu. Animatu!

- **Zumarte musika eskolak** bigarren kontzertu pedagogikoa antolatu du **Salbatore elizan**. Bertan, **Zumarte eskusoinu taldeak, Usurbilgo txistulari taldeak, Zumarte perkusio taldeak** eta **Zumarte orkestak** parte hartuko dute. Kontzertua arratsaldeko **18.00**etan hasiko da.

- **Larrua Truk** taldeak kontzertua eskainiko du **Oreretan**.

## APIRILAK 28 astelehena

- **Euskal Herria Askatu!**ren kontzentrazioa errotondan. Arratsaldeko **20.00**etan.

## OHARRAK

- ✓ **Uxoa Zumeta eta Nerea Zinkunegiren** pintura erakusketak ikusteko aukera izango dugu

**Udarregi Zahar**rean apirilaren 25 bitartean. Arratsaldeko **16.00**etatik **20.00**etara.

- ✓ **Arrate Zahar egoitzak** Nafarrora antolatu duen irteerara **apuntatzeko epea apirilaren 20an** amaizten da, egoitzan bertan.

- ✓ **Ramon Uribe usurbildar preso** eta beste 119 preso gose greban daudela ikusiz, **euskal presoak Euskal Herrira** ekar ditzaten protesta egiteko, apirilaren 18an **itxialdia** egingo da asteburuan zehar **udaletxean** Usurbilgo Amnistiaren Aldeko Batzordeak deitua. **Apirilaren 18an**, gaueko **21.00**ean **enkar-telada** egingo da itxialdiari hasiera emateko. Eta **apirilaren 20an**, eguerdiko **13.00**etan, **manifestazioa** amaiera emateko.

## BAZKIDE TXARTELA

5.000 PEZETAKO URTE OSORAKO

Izena: \_\_\_\_\_  
 1.Abizena: \_\_\_\_\_  
 2.Abizena: \_\_\_\_\_  
 Helbidea: \_\_\_\_\_  
 Herria: \_\_\_\_\_  
 Tfnoa: \_\_\_\_\_  
 Kontu Korrontea (20 digito): \_\_\_\_\_



# Kirol agenda

## APIRILAK 18 ostirala

- **Areto futboleko** partidua (M): **Elgoibar- Antxeta.**

## APIRILAK 19 larunbata

- **Sub-21 Sambo Txapelketa** ikusteko aukera izango dugu **Oiardo kiroldegian.** Arratsaldeko **16.30**etatik aurrera. Bertan, Usurbilgo Sambo taldea ere ikusteko aukera izango dugu.
- Bigarren erregionaleko **futbol** partidua (M): **Usurbil F.T.- Donibane S.C.R.D.** **Harane** futbo zelaian, arratsaldeko **18.00**etan.
- kadeteen mailako **futbol** partidua (M): **Usurbil F.T.- Iruindarra.** **Harane** futbol zelaian, goizeko **11.00**etan.
- Kadete mailako **eskubalo**i partidua (N): **Usurbil K.E.- Bidebieta.** **Oiardo** kiroldegian, arratsaldeko

17.00etan.

- Jubenil mailako **eskubalo**i partidua (N): **Arrate- Usurbil K.E.**

## APIRILAK 20 igandea

- **Hondartzako futbol** partidua (M): **Bocatta- Aginaga Sagardotegia.** Goizeko **8.45**etan, 9. zelaian.
- Senior mailako **saskibalo**i partidua 11.00etan(M): **Usurbil S. T- Txankakua**
- Jubenil mailako **futbol** partidua (M): **Usurbil F.T.- Intxaurren K.E.** **Harane** futbol zelaian, arratsaldeko **16.25**etan.
- **Futbol** partidua (N): **Aloña Mendi K.E- Usurbil F.T.** Azkoagain futbol zelaian, Oñatin.

## APIRILAK 26 larunbata

- Kadete mailako **eskubalo**i

partidua (N): **Pulpo- Usurbil**

- Kadete mailako **eskubalo**i partidua (M): **Usurbil K.E.- Zarautz.** **Oiardo** kiroldegian, arratsaldeko **16.00**etan.
- Bigarren nazionaleko **esku-balo**i partidua (M): **Usurbil K.E.- Pulpo.** **Oiardo** kiroldegian.
- **Areto futboleko** partidua (M): **Antxeta- Aloña Mendi.**

## APIRILAK 27 igandea

- Senior mailako **saskibalo**i partidua (M): **Haurtzaro ikastola- Usurbil S.T.**
- Jubenil mailako **futbol** partidua (M): **Aldapetarrak- Usurbil F.T.**
- Bigarren erregionaleko **futbol** partidua (M): **Gwendoline C.F.- Usurbil F.T.-**
- **Futbol** partidua (N): **Usurbil F.T.- Hondarribia F.T.**



Datorren **apirilaren 18, 19** eta **20**an, **jubenil mailako mutilen eskubalo**i taldeak **Espainiako Txapelketa** jokatu du **Iruñean** **Arrosadia** kiroldegian. Iaz Euskadiko txapelak izan ziren, aurten, berriz, azpitxapelak. Apirilaren **18**an, arratsaldeko **20.00**etan jokatu dute **San Antonioren** aurka, **19**an **Bartzelonaren** aurka arratsaldeko **20.30**etan, eta **20**an goizeko **10.30**etan **Corazonistas-en** aurka. Zorte on!

maitzak

### ESKUBALOIA

**Apirilak 5-6**  
**Urnieta- Usurbil,** 15-14 (jub.,n)  
**Usurbil- Bergara,** 20-19 (2.erregionala, m)  
**Apirilak 12-13**  
**Urnieta-Usurbil,** 12-13 (kadete, n)  
**Usurbil- Leizaran,** 31-24 (jub. n)  
**Urnieta-Usurbil,** 20-23 (2.erregionalak, m)

### FUTBOLA

**Apirilak 5-6**  
**Usurbil- Oiartzun,** 2-2 (neskak)  
**Urnieta- Usurbil,** 3-3 (erreg.)  
**Apirilak 12-13**  
**Usurbil- San Ignacio,** 6-1, (jub.)  
**Usurbil- Celtik,** 4-1 (2. erreg.)

### SASKIBALOIA

**Apirilak 12-13**  
**Beti Gazte- Usurbil,** 72-32

### ARETO FUTBOLA

**Apirilak 5-6**  
**Cafe Boulevard-Antxeta,** 1-6  
**Apirilak 12-13**  
**Antxeta- Gure Txokoa,** 3-2

### HONDARTZAKO FUTBOLA

**Apirilak 5-6**  
**Fama- Aginaga sagardotegia,** 4-4

USURBIL

**ZUBEROKO**

**EE**

**Ikastolaren alde**

**HERRI BAZKARIA**

**apirilak 27, igandea  
eguerdiko 14.00etan**

- Entsalada mixta
  - Urdaiazpiko tortila
  - Legatza saltsan
  - Usurbilgo mamia
- Kafea, kopa eta purua

**Prezioa: 2.000 pta.**

**Txartelak eskuratzeko epea:  
apirilaren 24a, osteguna**

**Txartelak salgai ondoko lekuetan:  
Aitzaga, Txiriboga eta Bordatxo**

ZUBEROKO EPERRA  
IKASTOLAREN ALDEKO EGUNA

**apirilak 27, igandea**

- 11.00etan, Txistularien esnadeia  
12.00etan, Herriko trikitilarien kalejira  
12.30etan, Zuberoko dantzarien kalejira, herrikoen laguntzaz  
13.00etan, Zuberoko eta herriko dantzarien emanaldia  
14.00etan, Herri bazkaria  
Ondoren, Herrian bildutako dirua eman-go zaie Zuberoko ordezkari  
Segidan, Zuberoko Mixel Arrotz kantaria, Mixel Etxekopare xirularia, bertsolariak, trikitilariak ...  
Bukatzeko, Herriko kaleetan zehar zuberotarrek lagunartea sendotzeko aukera kantuan

ZUBEROTARREK GURE LAGUNTZA BEHAR DUTE.

500.000 pezetetara iristeko gutxiago geratzen zaigu.

Lagun iezaiezu:

Euskadiko Kutxa:

140.0.01113.3

Gipuzkoa Donostia Kutxa:

2101 0069

1600.1062909

